

EVALUACIÓN DE PROGRAMAS SUBVENCIONALES 2011

CULTURA

1. IKT dirulaguntza deialdia.
2. HEHOBA deialdia.
3. HEDABIDEAK deialdia.
4. EUSKALGINTZA deialdia.
5. Subvenciones a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.
6. Arte plastikoak eta ikusizkoa.
7. Gure Artea Sariak.
8. Liburuaren itzulpena.
9. Euskarazko liburuen argitalpena.
10. Gaztelaniazko Liburuen Argitalpena.
11. Euskadi Literatura Sariak.
12. Ikus-entzunezkoen finantziazioa.
13. Ikus-Entzunezkoa Zine Aretoen diru laguntza.
14. Ikus-entzunezko publizitate eta sustapena.
15. Ikus-entzunezkoen ekoizpena.
16. Gidoien sorkuntza.
17. Dantza.
18. Musika profesionala.
19. Antzerkiko profesionalen prestakuntza.
20. Antzerkirako testu berriak.
21. Antzerki produkzioak.
22. Kale Antzerkia bultzatuz.
23. Egoitza programak.
24. Sormen Lantegiak.
25. Kultura 2.0: Kultura Industrien berrikuntza teknologikoa.
26. Jaialdiak.
27. Subvenciones a las federaciones deportivas vascas para programas deportivos anuales.

28. Subvenciones para financiar la participación en competiciones deportivas internacionales de alto nivel.
29. Subvenciones para la organización de competiciones deportivas de alto nivel.
30. Subvenciones para la ejecución de programas en bienes integrantes del Patrimonio Documental no público.
31. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako elkarteei, toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren artxibo sistema jarri edota sendotu ahal izan dezaten dirulaguntzak emateko modua arautzen duena.
32. Subvenciones a titulares y gestores de museos para la realización de actividades, así como a promotores de nuevos museos para estudios de viabilidad, de mercado, etc.
33. Subvenciones para el fomento de lectura entre niños y jóvenes. Subvenciones para la dotación y/o renovación de los fondos bibliográficos de las bibliotecas municipales. Subvenciones para la implantación y/o desarrollo de las nuevas tecnologías en las bibliotecas públicas de Euskadi.
34. Ayudas destinadas al intentariado de materiales arqueológicos y/o paleontológicos.
35. Ayudas para la defensa, enriquecimiento, protección y fomento del patrimonio cultural calificado e inventariado.
36. EBPN – Euskara toki-entitateetan.
37. Subvenciones para el desarrollo de programas y actividades en el ámbito de la Juventud y Acción Comunitaria.
38. Subvenciones para el desarrollo entre las personas jóvenes de programas de educación en valores democráticos y cultura de paz.
39. Subvención para el desarrollo de actividades dirigidas a la movilidad o al intercambio juvenil.
40. Subvención para el desarrollo de proyectos de cooperación dentro del programa Juventud Vasca Cooperante.
41. Subvenciones para impulsar la red de equipamientos juveniles en el ámbito local.

1-Título

Izenburua

IKT dirulaguntza deialdia

2-Norma Reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko apirilaren 20koa, Kulturako sailburuarena, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (IKT deialdia).

3-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Agindu honen xedea da, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak arautzea. Honako hauek dira lagunza-mota honetara bil daitezkeen egitasmoak:

A multzoa: Euskarazko atari eta web guneak edo Interneterako euskarazko eduki berriak

B multzoa: Softwarea euskaraz sortzea edo eta euskarara lokalizatzea.

4-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

Programari esker, 152 egitasmo diruz lagundu da eta horren eragina bereziki sarean diren euskarazko edukietan antzeman da. Batetik lehendik ziren web guneak edo atalak eguneratu dira, eta bestetik euskarazko eduki berriak sortu dira. Hona hemen datu adierazgarrienak:

- Deialdira etorritako eskaerak: 277
- Atzera egin duten eskatzaileak: 6
- Bazterrean utzitako egitasmoak: 6
- Lehiaketa fasera pasatakoak: 265
- Diruz lagundutako egitasmoak: 152
- Aurkeztutako aurrekontua: 12.235.100,81 euro
- Eskatutakoa: 4.914.430,82 euro
- Esleitutakoa: 1.576.000 euro

1.-Título

Izenburua

HEHOBA deialdia

2.-Norma Reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko uztailaren 28koa, Kulturako sailburuarena, euskarazko hedabideetan hobekuntza azterketak egitea helburu duten egitasmoi zuzenduriko diru-laguntzak emateko modua arautu eta deia egiten duena (HEHOBA deialdia).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Euskarazko hedabideetan hobekuntza-azterketak bideratu ahal izatea. Diru-laguntzaren onuradunak dira, HEDABIDEAK izeneko deialdiarenak, hau da: beharrezko lege-nortasunez horniturik egon eta, aldi berean, dagokion erroldan izena emanik, aipaturiko hedabideen jabe diren prestona fisiko eta juridiko pribatuak.

Azterketa lagungarriak:

- a) Hedabidearen planteamendua digitalizazioaren inguruan.
- b) Hedabideari zuzenduriko hobekuntza-proposamenak identifikatzea.
- c) Hedabideari buruzko hausnarketa estrategikoa.
- d) Hedabideari buruzko lan-ildo berrien potentzialitatea eta egingarritasuna lantzea.
- e) Hedabidearen posizionamenduaren eta hartzale potentzialarekiko harremanaren diagnostika egitea.
- f) Hedabidearen merkatuari dagokion azterketa.
- g) Hedabidearen finantzaketa propioa hazteko proposamena lantzea.

4.-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

6 egitasko aurkezta ziren eta 4 izan ziren diruz lagunduak.

Banatutako laguntza: 47.020 euro.

1.-Título

Izenburua

HEDABIDEAK deialdia.

2.-Norma Reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 4koa, Kulturako sailburuarena, euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (HEDABIDEAK deialdia).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Programa honen xedea da euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko 2011. urtean burutu diren egitasmoi zuzenduriko diru-laguntzak arautu eta dei egitea. Laguntzaren onuradunak honako hauek dira: beharrezko lege-nortasunez horniturik egon eta, aldi berean, dagokion erroldan izena emanik, aipaturiko hedabideen jabe diren pertsona fisiko eta juridiko pribatuak.

Hona hemen diruz lagungarriak diren hedabideak:

- a) A multzoa: euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua: euskararen esparru geografiko osoan eta udalerri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak.
- b) B multzoa: euskara hutsezko aldizkari inprimatuak:
 - B₁ azpi-multzoa: Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...).
 - B₂ azpi-multzoa: Udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.
- c) C multzoa: nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarriak.
- d) D multzoa: emititu ahal izateko beharrezkoak diren baimenen jabe izanik, partez edo erabat, euskaraz ari diren uhin bidezko irratiaik.
- e) E multzoa: emititu ahal izateko beharrezkoak diren baimenen jabe izanik, partez edo erabat, euskaraz ari diren telebistak.
- f) F multzoa: Internet bidezko hedabideak eta berri agentziak:
 - Euskara hutsezko egunkari eta aldizkariak.
 - Partez edo erabat, euskaraz ari diren irratiaik.
 - Notiziak euskaraz ematen dituzten berri-agentziak.

4.-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

2011. urtean, 130 egitasmo aurkeztu ziren eta 123 izan ziren diruz lagunduak.

Banatutako lagunza: 5.480.000 euro.

Eragina gizartean: Oso handia

1-Título

Izenburua

EUSKALGINTZA deialdia

2-Norma Reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko apirilaren 20koa, Kulturako sailburuarena, gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (EUSKALGINTZA deialdia).

3-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Programa honen xedea honako hau da: gizarte-bizitzaren esparru jakinetan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko lanean diharduten pertsona fisikoek edo juridiko pribatuek 2011. urtean burututako egitasmoei zuzenduriko diru-laguntzak arautu eta dei egitea.

Egitasmo lagungarriak:

- a) Aisialdian euskararen erabilera areagotu eta sendotzeo egitasmoak: aisialdirako begiraleei zuzendutako prestakuntza eta material-prestakuntza; eskola-ordutegitik kanpo dauden jardunen garapena.
- b) Ezagupenetik erabilerarako jauzia egite aldera, harreman sareetan euskararen erabilera sustatu eta indartzeko egitasmoak, bai ahozkoan bai irakurri-idatzian, zenbait gizarte-talderi zuzendutakoak lehenetsiz: haur eta gazteak, euskaldun berriak.
- c) Haur eta gazteen aisialdiko kirol ekintzetan euskararen erabilera areagotu, sustatu eta indartzeko egitasmoak.
- d) Euskara ez dakiten euskal herritarrek euskarara hurbiltzea eta beroriei euskaraz sortu eta burututako jardunaren berri ematea helburu duten egitasmoak.
- e) Euskararen ondareari buruzko informazioa jaso, gorde edota digitalizatu eta hedatzea helburu duten egitasmoak.
- f) Euskarari lotutako alderdiren bat aztertzeko jardunaldiak.
- g) Euskalgintzan ibilbide oparoa izateagatik nabarmendutako pertsonak edo elkarteko omentzeko egitasmoak.
- h) Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu duten egitasmoak.
- i) Euskarazko irakur zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak: irakurketa- eta idazketa-trebetasunak garatze aldera buruturiko jardunak, sariak, lehiaketak, idazleen eta irakurleen arteko topaketak eta literatura-gidak.
- j) Emakumeen euskarazko sormen kulturala bultzatzea helburu duten egitasmoak: hitzaldiak, erakusketak eta tailerrak.
- k) Etorkinen artean euskararen erabilera sustatzena zuzendutako jarduerak eta proiektuak bultzatzea helburu duten egitasmoak.

- l) Euskaraz landu eta plazaratutako kalitatezko ekarpenak bikaintasunaren irizpideen arabera bultzeta babesteko egitasmoak.
- m) Euskarazko jostailu, joko eta denbora-pasak.
- n) Euskararen Aholku Batzordeak "Euskara 21. Itun Berritu Baterantz. XXI. Mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak" lan-ildo estrategikoak bideratzeko lagungarri diren egitasmoak.

4-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartearen

244 egitasmo aurkeztu ziren eta 162 lagundu dira.

Banatutako laguntza: 1.280.000 euro.

Eragina gizartean : Oso handia.

1.-Título

Izenburua

Subvenciones a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco

2.-Norma Reguladora

Araua

DECRETO 164/2008, de 30 de septiembre, por el que se regula la concesión de subvenciones a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco (BOPV nº 193, de 9 de octubre de 2008), modificado por el DECRETO 200/2010, de 13 de julio (BOPV nº 140, de 22 de julio de 2010).

ORDEN de 7 de septiembre de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se convocan para el año 2011 subvenciones destinadas a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco..

3.-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

La propia exposición de motivos de la disposición es fiel reflejo de las razones que han inducido al Departamento a seguir los trámites pertinentes a fin de que aquélla surta efectos. He aquí la transcripción literal de las motivaciones:

“El ordenamiento jurídico vigente otorga a las Administraciones Públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, el ejercicio de las funciones de fomento, ayuda y coordinación de las fundaciones y asociaciones según la naturaleza de sus fines fundacionales y asociativos. En este sentido, las fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos contribuyen con su actividad a la formación y el desarrollo del pensamiento político, social y cultural de la ciudadanía.

La diversidad de actividades que pueden desplegar este tipo de entidades supone que, sin perjuicio de que algunas de ellas puedan ser susceptibles de ser atendidas desde diferentes programas de fomento, puedan ser promocionadas con carácter genérico y a través de cauces específicos el funcionamiento de dichas entidades.

Todo lo expuesto lleva a considerar la necesidad de establecer un procedimiento que, con carácter general y adecuándose a la normativa vigente en materia de subvenciones, marque las pautas para una distribución, de conformidad con los criterios de publicidad, objetividad y concurrencia, de los recursos destinados al fomento de la actividad de tales entidades.”

4.-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

Dotación presupuestaria: 285.000,00
 Importe concedido: 284.998,00
 Ejecución presupuestaria: 100,00%

RESULTADOS OBTENIDOS:

- De las 7 posibles entidades solicitantes (tantas como grupos políticos con representación en el Parlamento Vasco), se han recibido 4 solicitudes, concediéndose **3 subvenciones** a programas anuales presentados por otras tantas fundaciones con dependencia orgánica de partidos políticos, programas que en conjunto abarcan la **realización de un total de 27 subprogramas con más de 50 actividades diferentes**.
- Por otro lado, comentar que el índice medio de cobertura (media del porcentaje que expresa la relación existente entre el importe de la ayuda concedida y el de la solicitada), ha pasado del 51,19% en el año 2010 al 54,83% en el ejercicio 2011 (incremento de 3,64%)

A: Territorio
C: Importe solicitado

B: Entidad solicitante
D: Importe Concedido

E: Índice de cobertura.

A	B	C	D	E
BIZKAIA	FUNDACIÓN SABINO ARANA	208.000,00	143.570,00	58,20
	FUNDACIÓN RAMÓN RUBIAL	206.600,00	120.238,00	69,02
	FUNDACIÓN POPULAR DE ESTUDIOS VASCOS	56.825,28	21.190,00	37,29
			284.998,00	54,19

Por consiguiente, a la vista de los objetivos marcados en el programa económico presupuestario en el que se encontraba insertado el programa en el ejercicio 2011 [4511 (Estructura y apoyo) de la sección 11 (Departamento de Cultura)]:

“OBJETIVO: Coordinación en materias de carácter horizontal.

ACCIÓN: Ámbito de gestión económica y presupuestaria.

INDICADOR: Programas de estudio y desarrollo del pensamiento político, social y cultural a realizar por fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

MAGNITUD:

1.- Nº de subvenciones (5).

2.- Nº de actividades realizadas (25) [esta magnitud no figura por omisión involuntaria, pero se trata de un dato a tomar en consideración a la hora de evaluar la convocatoria].

3.- Índice de cobertura (mínimo 50), magnitud que expresa porcentualmente la relación existente entre el importe de la ayuda concedida y el de la solicitada.”

y, por otro, tomando en consideración los resultados obtenidos en el presente ejercicio, podemos manifestar que:

Los objetivos marcados en la memoria presupuestaria del ejercicio 2011 han sido, excepción hecha del nº de solicitudes, cumplidos tal y como se preveían, superándose incluso en dos de los indicadores la intensidad de sus magnitudes.

Con relación a la disminución del nº de solicitudes, cabe destacar que, por un lado, probablemente el haber sido un año electoral y por otro, la suma de la creación de nuevas coaliciones, de la lucha interna desatada en otras ya preexistentes y los resultados electorales de otras fuerzas, han influido notablemente en este descenso.

Así, en los dos ejercicios anteriores la participación fue del 100% (7 fundaciones por 7 partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco), mientras que en el ejercicio 2011 se ha vuelto a la del primer año (2007) en la que se inició este programa de ayudas, no presentando solicitud alguna las fundaciones ALKARTASUNA (EA), IDI EZKERRA [EB-BERDEAK o EZKER ANITZA (Izquierda Unida-Los Verdes)] y PROGRESO Y DEMOCRACIA (UPyD), esta última notificando expresamente y por escrito su no participación en la convocatoria. Por otro lado, la fundación EZKERRABERRI (Aralar) si bien presentó solicitud en plazo, transcurrido un breve tiempo solicitó al Órgano Gestor la aceptación de la solicitud de desistimiento en la tramitación del expediente.

Por último, cabe destacar que desde la Dirección de Servicios se ha posibilitado la tramitación telemática en la presente línea de ayudas, habiéndose tramitado electrónicamente el 50% de las solicitudes.

1.-Título

Izenburua

Arte Plastiko eta Ikusizkoak

2.-Norma Reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko martxoaren 16koa, Kultura sailburuarena, Arte Plastiko eta Ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak emateko erregimena ezarri eta arautzen duena (EHAA 62 zkia., 201ko martxoaren 30ekoa).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Programa honen helburua 2011n zehar arte plastiko eta ikusizkoen zabalkunde eta ekoizpen arloan burutu diren jardueretarako dirulaguntzak ematea izan da. Sektoreko profesionalen formazioa ere lagundu nahi izan da.

Diruz laguntzen diren arloak ondokoak dira:

- 1.- Prestakuntza arloa: ikusizko arteekin lotura duten ikastaro, mintegi eta lantegietan parte hartzea eta artista, kritikari, komisarioi eta sektoreko profesionalaren prestakuntzari begira dago. 25.000€
- 2.- Sustapen-zabalkundearen arloa:
 - a) Arte garaikideko erakusketak edo gertakizunak antolatzea eta/edo beraietan parte hartzea (lehiaketak, jaialdiak, erakusketak...) bai eta edozein euskarritan jasotako egileen gaineko dokumentazioa ere, ekitaldiok Euskadiko Autonomia Erkidegoko arte zentroetan izango dira eta Euskal Herrian bizi diren egileen lanak erakutsiko dira: 65.000€
 - b) Arte garaikidearen gaineko sentsibilizazio-adierazpenak (elkartzeak, jardunaldiak, biltzarak,...). Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremuan burutu behar dira, baita hauetaz edozein euskarritan jasotako dokumentazioa ere: 50.000 €
 - c) Euskarri desberdinak erabiliz egindako argitalpenak egitea, beren xedeak Euskal Herriko arte garaikidea zabaltzea eta bertako artistak eta haien lana sustatzea izanik: 90.000 €
- 3.- Sorkuntza-ekoizpenaren arloa: proiektuak egitea, ardatza baldin bada arte ekoizpena edo ikerketa proiektuak lantzea. 170.000 €

4.-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

Programa hau, bere gain hartzen dituen arlo eta modalitate ezberdinaren artean, ikusizko arteen arloko prestakuntza, zabalkunde eta ekoizpen beharrei erantzuten saiatzen da. Programak orokorrean emaitza onak izan ditu; arloz arlo berriz programak ez du jokabide homogeneoa. Honela, zabalkunde eta ekoizpen arloak oso finkatuta daudenez erantzun oso

ona izan dutela esan genezake. Prestakuntza arloak, berriz, erantzun txarra izan du eta espero zitezkeen emaitzak ez dira lortu, izan ere 2011n, berriro ere, ez da diru kopuru guztia esleitu, aurreko urteetako joera finkatuz.

Guztira kopuru eskaera mantendu dela esan genezake, 183tik 172ra pasa da, baina kontuan hartu behar da 2011n kanpoko promozioa Etxepare Instittuak hartu duela bere gain.

2011n lortutako emaitzak honako hauek dira hurrenez hurren (arlo-modalitatea, eskaera kopurua, baiezkoen kopurura, hasierako aurrekontua eta emandakoa):

1.- Prestakuntza: 15, 8, 25.000€, 13.368€

2.- Sustapen-zabalkuntza:

a) Erakusketak Euskadin 17, 8, 65.000€, 57.605€

b) Jardunaldiak, batzarrak: 12, 6, 50.000€, 57.389€

c) Argitalpenak: 45, 14, 90.000€, 89.994€

3.- Ekoizpena: 83, 25, 170.000€, 170.000€

Guztira: Eskaerak: 183. Baiezkoak: 61. Aurrekontua: 400.000 €. Emandakoa: 388.626€.

Ikusten denez, Prestakuntza arlorako zegoen diru kopurua ez da guztiz banatu.

1-Título

Izenburua

GURE ARTEA SARIAK

2-Norma Reguladora

Araua

ORDEN de 17 de febrero de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se regulan y convocan los Premios Gure Artea para la promoción de las artes plásticas y visuales. EHAA - 2011ko martxoak 2, asteazkena 42 ZK.

3-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Programa honen helburua Arte Plastikoak eta Ikusizkoak sustatzea da. Haien bitartez saritutakoak egindako lana aitortu nahi da eta Euskadiko arte garaikidean eta kulturan izan duten ekarpena errekonozitu.

25.000 euroko hiru sari dira. Deialdia urtero argitaratzen da

Modalitateak:

- a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: artista saritzen da bere ibilbide artistiko osoagatik
- b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: artista saritzen da azken urteetan egindako lanarengatik
- c) Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: edozein agente saritzen da Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik.

4-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartearen

Saridunak 2011n modalitateka:

- a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: Agustín Ibarrola
- b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: Maider Lopez
- c) Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: Santiago Eraso

2011ko ekainean Bilboko Arte Ederretako Museoan sari- emate ekitaldia antolatu zen

1.-Título

Izenburua

Liburuaren Itzulpena

2.-Norma reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko otsailaren 2ko, Kultura sailburuarena, euskal liburuen itzulpenarekin zerikusia duten ekintzetarako laguntzak emateko modua arautu eta deia egiten duena. (EHAA 31. zkia., 2011ko otsailaren 15eko).

3.- Breve descripción y objetivos del Programa subvencional

Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea euskarazko liburuak zein Euskal Autonomia Erkidegoan jaio edo bertan helbideratuta dauden idazleek jatorriz gaztelaniaz sortutako literatur lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko laguntzak ematea da. 2011n 105.000 €ko aurrekontua egon da, eta diruz lagun daitezkeen honako jarduera-eremu edo modalitate hauen arabera daude banatuta:

- Euskaraz idatzitako jatorrizko literatura-lanak eta Euskal Autonomia Erkidegoan jaio edo bizi diren egileen gaztelaniazko literatura-lanak beste hizkuntzetara itzultzea: 75.000 euro.
- Nazioarteko merkatuetan itzulpen-eskubideak saltzen bideratutako literatura-lanen laginen itzulpenak: 15.000 euro.
- Literatura-itzulpenaren eremuan, prestakuntza-jarduerak antolatzea: 15.000 euro.

4.-Resultados alcanzados y utilidad e impacto social

Lortutako emaitzak eta eragina gizartean

Aurten berriro, diru-baliabide guztiak agortu ez badira ere, garatutako programek Euskal Herriko produkzio bibliografikoa Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ezagutarazteko helburua betetzen dutela nabaria da.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak eta emandako dirua:

- Itzulpenak: 41, 27, 63.792 euro.
- Laginak: 1, 1, 1.761 euro.
- Prestakuntza jarduerak: 1, 1, 12.410 euro.

Guztira, beraz, 77.963 euro banatu dira.

1.-Título

Izenburua

Euskarazko Liburuen Argitalpena

2.-Norma reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko ekainaren 1ekoa, Kultura sailburuarena, euskaraz argitaraturiko liburuetarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duena. (EHAA 112. zkia., 2011ko ekainaren 14koa).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa subvencional

Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea euskaraz argitaraturiko liburuetarako laguntzak ematea da.

2011ko ekitaldirako programa honen aurrekontua 428.000 eurokoa izan zen.

4.-Resultados alcanzados y utilidad e impacto social

Lortutako emaitzak eta eragina gizartean

Helburu garrantzitsu bat betetzen da deialdi honen bidez: euskarazko edizioa bultzatzen duten enpresei laguntea. 25 argitaletxek aurkeztutako 27 Edizio Planetan 373 euskarazko lan literarioen edizioa lagundu da. Presupuestoa guztia agortu zen.

1.-Título

Izenburua

Gaztelaniazko Liburuen Argitalpena

2.-Norma reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko ekainaren 1ekoa, Kultura sailburuarena, gaztelaniazko literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 112. zkia., 2011ko ekainaren 14koa).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa subvencional

Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea gaztelaniazko literatura-argitalpenetarako laguntzak ematea da. 2011ko ekitaldirako programa honen aurrekontua 133.700 eurokoa izan zen.

4.-Resultados alcanzados y utilidad e impacto social

Lortutako emaitzak eta eragina gizartean

Helburu garrantzitsu bat betetzen da deialdi honen bidez: gaztelaniazko edizioa bultzatzen duten enpresei laguntzea. 19 argitaletxek aurkeztutako 19 Edizio Planetan 175 euskarazko lan literarioen edizioa lagundu da. Presupuestoa guztia agortu zen.

1.-Título

Izenburua

Euskadi Literatura Sariak

2.-Norma reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko apirilaren 13koa, Kultura sailburuarena, Euskadi literatura sariak, arautu eta horretarako dei egiten duena.

(EHAA 79. zkia., 2011ko apirilaren 27koa).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa subvencional

Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Herriko literatura lanetarako den Euskadi literatura sariak euskaraz zein gaztelaniaz aurreko urtean idatzi eta argitaratutako lanen literatur kalitatea saritzen du, hizkuntzak aberasteko eta literatur adierazpenetarako erabil daitezen lagungarri izango delakoan.

Zortzi modalitate ezberdin daude: euskarazko literatura (18.000 €), gaztelaniazko literatura (18.000 €), euskarazko haur eta gazte literatura (18.000 €), gaztelaniazko haur eta gazte literatura (18.000 €), euskarazko literatura itzulpena (18.000 €), literatura lanaren ilustrazioa (18.000 €), euskarazko saiakera (18.000 €) eta gaztelaniazko saiakera (18.000 €).

4.-Resultados alcanzados y utilidad e impacto social

Lortutako emaitzak eta eragina gizartean

Euskadi Literatura Sariak (euskarazko literatura, gaztelaniazko literatura, euskarazko haur eta gazte literatura, gaztelaniazko haur eta gazte literatura, euskarazko literatura itzulpena, literatura lanaren ilustrazioa, euskarazko saiakera eta gaztelaniazko saiakera) euskal literaturgintza bultzatzeko oso tresna erabilgarriak dira. Hauen bidez saritutako autoreek eta euren obrek garrantzizko proiekzio publikoa izaten dute.

1.-Título

Izenburua

Ikus-Entzunezkoaren Finantziazioa

2.-Norma reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko apirilaren 20koa, Kultura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen produkzioa sustatzeko finantzaketa-erregimenaren 2010erako deialdia egiten duena ekainaren 26ko 107/2007 Dekretuak ezarritako esparruaren barruan. (EHAA 178 zkia., 2010eko irailaren 15ekoa).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa subvencional

Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Honen helburua Euskal ikus-entzunezkoen sektorean produkzioa, lehiakortasuna eta enplegua ikus-entzunezko proiektuak finantzatzearen bidez bultzatzeko sustapen-lerroen erregimena eta baldintzak ezartzea da. Horretarako, bi sustapen-lerro ezarri dira: interes-tasarik gabeko mailegu itzulgarrien bidez (Dekretuaren II. kapituluan araututako modalitatea), eta kontratuak finantzatzeko maileguen bidez (III. kapituluan araututako modalitatea).

4.-Resultados alcanzados y utilidad e impacto social

Lortutako emaitzak eta eragina gizartean

Programa honek espero genuen baino harrera txikiagoa izan du. Hala ere, sektorearentzat oso lagungarria da finantzazio modalitate hau, film asko honi esker burutu ahal izango dutelako. Finantzazio mota hauek dira industria sustatzen laguntzen dutenak.

1.-Título

Izenburua

Ikus-Entzunezkoa Zine Aretoen diru laguntza

2.-Norma reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko urriaren 26ko, Kulturako sailburuarena, zinema-aretoek digitalizatzeko laguntzak arautzen dituena. (EHAA 204 zkia., 2011ko urriaren 27ko).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa subvencional

Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da 2011 urtealdian zinema-aretoetan proiekzio digitalerako sistem ezartzeko laguntzak emateko deialdia egitea eta horretarako baldintzak ezartzea.

Laguntza-modalitateak.

- 1.- Gehienez bost pantaila dituzten eta urteko programazioaren %40a baino gehiago, Europa Batasuneko edo Iberoamerikako film luze eta laburrekin betetzen dituzten zinema-aretoetara laguntzak.
- 2.- Gehienez bost pantaila dituzten eta urteko programazioaren %35etik gora eta gehienez %40 Europa Batasuneko edo Iberoamerikako film luze eta laburrekin betetzen dituzten zinem aretoetarako laguntzak.
- 3.- Bost pantaila baino gehiago dituzten eta urteko programazioaren %50a, gutxienez, Europa Batasuneko edo Iberoamerikako film luze eta laburrekin betetzen dituzten zinema-aretoetara laguntzak.

4.-Resultados alcanzados y utilidad e impacto social

Lortutako emaitzak eta eragina gizartean

Programa honek espero genuen harrera izan du: 14 zine-areto aurkeztu dira, hauetatik 8 lehenengo modalitatera, 3 bigarren modalitatera eta beste 3 hirugarren modalitatera.

1.-Título

Izenburua

Ikus-Entzunezko Publizitate eta Sustapena

2.-Norma Reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko uztailaren 7ko, Kultura sailburuarena, fikziozko eta animazioko film luzeen eta sortze-dokumentalen publizitate eta sustapenaren aldeko diru-laguntzak arautu eta deialdia egiten duena. (EHAA 163. zkia., 2011ko abuztuaren 29ko).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Agindu honen bitartez, ikus-entzunezko ekoizpenak sustatzeko eta horien publizitatea bultzatzeko araudia xedatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Europako Batasunean lan horien zabalkundea eta merkaturatzea areagotzeko eta Euskal Herriaren kultur nortasuna babesteko eta haren berri emateko, gero eta globalagoa den merkatuan.

2011an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 181.600 eurokoa izan zen. Gero 2011ko urriaren 6ko ebazpenaren bitartez 16.000 eurotan gehitu zen zenbateko orokorra.

4.-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

2011. urtean asko jaitsi zen deialdiaren zenbateko orokorra 2010eko emaitza kaskarrak ikusi ondoren. Hala ere, 2011ko emaitza askoz hobea izanda 9 eskaera jaso dira, horietatik 8k jaso dute diru-laguntza. Gainera eskaeren artean denetik egon da, lau dokumental, lau fikziozko film luze eta animaziozko film luze bat.

Behar bada programa honek denbora bat behar zuen finkatzeko eta horregatik 2011 urtean hasi gara emaitza hobeak jasotzen.

1-Título

Izenburua

Ikus-Entzunezkoen Ekoizpena

2-Norma Reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 25eko, Kultura sailburuarena, ikus-entzunezkoen arloan sorrera, garapen eta produkzioaren aldeko diru-laguntzearako deialdia egiten duena (EHAA 110 zkia., 2011ko ekainaren 10eko).

3-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Deialdi honen helburu nagusia kulturaren ikuspegitik gure Iurrealdean hain garrantzitsu eta beharrezkoa den ikus-entzunezko azpiegitura finka dadin sustatu eta laguntzea da. Horretarako, deialdi honen bidez, besteak beste, ondorengo ekimenak sustatzen dira: proiektuak garatzea (fikziozkoak, animaziozkoak, dokumentalak nahiz multimedialakoak) eta ikus-entzunezko lanak ekoiztea (zinemarako fikziozko film luzeak, telebistarako film luzeak, zinemarako animaziozko film luzeak, sortze-dokumentalak eta zinemarako fikzio nahiz animaziozko film laburrak).

2011an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 1.920.000 euroka zen, baina 2011ko irailaren 1eko ebazenaren bitartez 1.305.000 eurotan gehitu zen. 35.638 euro esleitu gabe geratu ziren. Beraz, 2.984.866 euro banatu ziren.

Hurrenez hurren: Modalitatea: Eskaerak, Baiezkoak eta Emandakoa:

- Laburmetraiak: 52, 14, 180.504 €
- Garapenak: 48, 20, 437.718 €
- Zinemarako fikziozko film luzeak: 19, 5, 836.380 €
- Telebistarako film luzeak: 5, 3, 800.000 €
- Animazioa: 7, 3, 560.000 €
- Dokumentalak: 19, 4, 170.264 €

4-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

2011. urtean nabarmendu da krisi ekonomiko orokorra eta zineak bizi duen krisi espezifikoa. Hori dela eta, iritsi diren proiektuak batez ere zinemarako film luzeen modalitatean apalagoak izan dira. Horregatik diru gutxiago banatu da. Aldi berean telebistarako diren film luzeetako modalitatean kalitatezko eta interesgarriak diren proiektuak aurkeztu dira eta egoera hau aprobetxatz dirua modalitate batetik bestera pasatu da. Telebistarako film luzeak aukera ona izan daiteke ikus-entzunezkoen alorrean lortutako azpiegitura industrialari eusteko batez ere krisi garaietan.

Programa honek bere gain hartzen dituen 6 modalitate ezberdinaren artean ikus-entzunezko arloko sorkuntza eta ekoizpeneko beharrei erantzuten saiatzen da, ikus-entzunezkoaren sektorean duen eragina esanguratsua delakoan gaude.

1.-Título

Izenburua

Gidoien Sorkuntza

2.-Norma Reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 5ekoa, Kultura sailburuarena, gidoien sorkuntzarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena (EHAA 100 zkia., 2011ko maiatzaren 27koa).

3.-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Deialdi honen helburu nagusia kulturaren ikuspegitik gure lurrealdean hain garrantzitsua eta beharrezko den ikus-entzunezko alorrean sorkuntza sustatzea eta laguntzea da. 2011an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 150.600 eurokoa izan da, 2010koarekin alderatuta 40.800 eurotan igo da kopurua.

2011an 66 eskaera jaso dira. Hauetatik 12k jaso dute diru-laguntza eta hauen artean diru kopuru osoa banatu da.

4.-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

Programa honek ikus-entzunezko arloko sorkuntzaren beharrei erantzuten saiatzen da. 2010eko deialdian ezarri zen bigarren modalitate berria gidoilari gazteentzat 2011an ere mantendu da, eta emaitza onak izan ditu gidoilari gazteei ikusgarritasun handiago ematen dielako. Aldi berean gidoilari helduei aukera gehiago eman zaie dirulaguntza kopurua 6tik 9ra pasa direlarik.

Horretaz aparte Gidoilarien Elkartarekin batera hainbat ekintza martxan jarri dira gido sorkuntzarako dirulaguntzaren eragina indartzeko eta lagundu diren gidoiak kajoi batean bukatu ez dezaten. Zentzu horretan proiektuen garapena eta ikus-entzunezko ekoizpena sustatzeko dirulaguntza deialdian gehiago puntuatuko dute gidoien sorkuntzarako deialdian onuraduna suertatu diren gidoiek. Bestetik gidoilari onuradunak ikus-entzunezko produktoreekin harremanetan jartzeko asmoarekin pitching saio bat antolatuko da.

Azken urteotako datuak kontuan harturik, modalitate eta kopuruen hazkundea alde batetik eta dirulaguntzen etekina indartu ahal izateko hartutako neurriak bestetik ikus-entzunezkoaren sektorean duen eragina esanguratsuagoa delakoan gaude.

1-Título

Izenburua

Dantza

2-Norma Reguladora

Araua

AGINDUA, 2011ko Maiatzaren 11koa, Kultura sailburuarena, Dantza sustatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko dena. (EHAA 102 zkia., 2011ko maiatzaren 31koa).

3-Breve descripción y objetivos del Programa Subvencional

Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Programa honen bitarte, Dantza jarduerak sustatu nahi dira, hain zuzen ere honako jarduera-modalitate hauek: koreografi sorkuntza, konpainiak sendotzea, ekoizpena eta profesionalentzeko etengabeko prestakuntza eta laguntza.

2011an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 348.000,00 eurokoa izan zen, modalitateen arabera honela banaturik:

- 30.000,00 euro dantza sorkuntzarako (koreografi laburrak sortzeko laguntzak).
- 100.000,00 euro konpainiak sendotzeko modalitatean
- 120.000,00 euro dantza ekoizpen profesionaltarako.
- 98.000,00 euro, dantza profesionalentzeko etengabeko prestakuntza eta laguntza.

4-Resultados Alcanzados y Utilidad e Impacto Social

Lortutako Emaitzak eta Eragina Gizartean

Agindu honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak erabili ziren, nahiz eta modalitateen arteko aldaketa txiki batzuk egin ziren.

Deialdi honen bitarte 34 pertsona edo entitatek jaso dute Dantzarako laguntza, beraz, esan ahal dugu, programa oso eraginkorra gertatzen dela.

Hurrenez hurren: Arloa / Eskaera kop. / Emandako diru-laguntza kopuria / Hasierako diru kopuria / Emandako diru kopuria, orotara.

- Sorkuntza: 14 / 10 / 30.000 € / 30.000 €
- Konpainiak sendotzea: 3 / 2 / 100.000 € / 82.300 €
- Ekoizpena: 13 / 10 / 120.000 € / 137.800 €
- Etengabeko prestakuntza eta laguntza: 15 / 12 / 98.000 € / 98.000 €

1-Título

Izenburua

Musika Profesionala

2-Norma Reguladora

Araua

